Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

2174

AGINDUA, 2011ko martxoaren 14koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Bilboko udalerriko Bilbo Zaharra aldean, 55 etxebizitza sozial esleitzeko hautaketa-prozesua hasi eta hainbat zehaztasun finkatzen dituen Agindua indargabetzen duena.

GERTAKARIAK

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduak babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura arautzen du. Hori, Babes publikoko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko 2008ko martxoaren 28ko 39/2008 Dekretuaren 12. artikuluan jasotzen da.

2.– 55 etxebizitza sozialen sustapena Bilboko Bilbo Zaharra aldean kokatuta dago, Eusko Jaurlaritzak sustatu zuen, eta aipatutako aginduak arautzen duen prozedura aplikatu zitzaion. Sustapen horrek 2006ko abenduaren 21ean eskuratu zuen behin-behineko kalifikazioa eta EB2-0686/06-EE du espediente zenbakia.

3.– 2010eko ekainaren 4an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2010eko maiatzaren 10eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Bilboko udalerriko Bilbo Zaharra aldean, 55 etxebizitza sozial esleitzeko hautaketa-prozesua hasten zuena eta hainbat zehaztasun finkatzen zituena.

4.– Agindu hori argitaratu ondoren, eta onartu eta baztertuen zerrendak onartu aurretik, zenbait etxebizitza-premia espezifiko sortu dira. Premia horiek bete ahal izateko goian aipaturiko Agindua indargabetzea eta bertan jasotzen den esleipen prozedura bukatutzat ematea ezinbestekoa da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuari dagokio honako Agindu hau egitea, hala xedatzen baita Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 4.a) artikuluan.

2.– 39/2008 Dekretuko 12. artikuluko 2. puntuan ezartzen da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailbu-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

2174

ORDEN de 14 de marzo de 2011, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se deja sin efectos la Orden de inicio del proceso de selección y determinación de diversas especificaciones, para la adjudicación de 55 viviendas sociales en el área de Bilbao La Vieja, en el municipio de Bilbao.

HECHOS

1.– Mediante Orden del Consejero del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales de 16 de abril de 2008, se regula el procedimiento de adjudicación de las viviendas de protección oficial, tal y como se recoge en el artículo 12 del Decreto 39/2008 sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

2.– La promoción de 55 viviendas sociales ubicada en el área de Bilbao La Vieja, en el municipio de Bilbao y promovida por la el Gobierno Vasco, se encontraba sometida al procedimiento regulado en la citada orden. Dicha promoción recibió la correspondiente calificación provisional con fecha 21 de diciembre de 2006 bajo el número de expediente EB2-0686/06-EE.

3.– El 4 de junio de 2010 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco la Orden de 10 de mayo de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, que iniciaba el proceso de selección y determinaba diversas especificaciones, para la adjudicación de 55 viviendas sociales en el área de Bilbao La Vieja, en el municipio de Bilbao.

4.– Posteriormente a dicha publicación y antes de aprobarse la relación de admitidos y excluidos, han surgido ciertas necesidades específicas de vivienda imposibles de satisfacer si no se deja sin efectos la Orden arriba citada, y no se da por terminado el procedimiento de adjudicación que en ella se inicia.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.– Corresponde al Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes dictar esta Orden, en virtud de lo previsto en el artículo 4.a) del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

2.– El apartado 2 del artículo 12 del Decreto 39/2008 establece que por Orden del Consejero de

ruaren Agindu bidez, esleitzeko prozeduretatik kanpo utzi ahal izango direla etxebizitza-premia espezifikoa asebetetzera zuzendutako babes ofizialeko etxebizitzak. Normalean, ez dira sustapeneko etxebizitza guztiak kanpo uzten, eta prozedurak baztertu ez diren etxebizitzekin aurrera jarraitzen du.

Kasu honetan ordea, etxebizitza-premia espezifikoak asebetetzeko, sustapeneko 55 etxebizitzak behar dira. Beraz, etxebizitza horiek esleipen prozeduratik kanpo utzi ondoren, ez da posible aipaturiko prozedurarekin jarraitzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 87.2 artikuluak xedatzen duenaren arabera.

Hori guztia dela-eta, aipatutako aginduak eta oro har aplikatu beharrekoak ikusita,

EBATZI DUT:

2010eko maiatzaren 10eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Bilboko udalerriko Bilbo Zaharra aldean, 55 etxebizitza sozial esleitzeko hautaketa-prozesua hasten duena eta hainbat zehaztasun finkatzen dituena, indargabetzea. Eta bide batez, prozedura horren amaiera adieraztea, prozedura horrekin jarraitzea ezinezkoa delako gerora sortutako arrazoiak direla-eta.

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke hilabeteko epean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuari; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa hasieratik, zuzenean, bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da errekurtso biak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 14a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

Vivienda y Asuntos Sociales podrán excluirse de los procedimientos de adjudicación aquellas viviendas de protección oficial que se destinen a satisfacer necesidades específicas de vivienda. Normalmente esta exclusión no abarca a la totalidad de las viviendas de una promoción, por lo que el procedimiento puede continuar con las viviendas no detraídas.

Sin embargo, en este caso, las necesidades específicas de vivienda que es preciso satisfacer alcanzan a las 55 viviendas de la promoción. Por lo tanto, una vez excluidas éstas del procedimiento de adjudicación, ya no es posible continuar materialmente con éste, conforme a lo previsto en el artículo 87.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

A la vista de los preceptos legales señalados y demás de general y concordante aplicación.

RESUELVO:

Dejar sin efecto la Orden de 10 de mayo de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se inicia el proceso de selección y se determinan diversas especificaciones, para la adjudicación de 55 viviendas sociales en el área de Bilbao La Vieja, en el municipio de Bilbao, y por tanto, declarar la terminación del dicho procedimiento por imposibilidad material de continuarlo por causas sobrevenidas.

Contra la presente Orden procede interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de marzo de 2011.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.